Zurriolako Ataria

80. alea 2019-12-05

Euskararen eguna festa giroan

Urtero moduan abenduaren 3ak euskararen aldeko sentsibilizazioa eta hausnarketarako aukera emateaz gain, Ikastola hankaz gora jarri eta ospakizunetarako aitzaikia ederra eman zigun. Halaxe, denok murgildu ginen festa giroan. Hotzari aurre egiteko eta musika eskolako musikari eta Lanbide Heziketako ikasleen laguntzaz, Manteo, Josefinak eta Soroan jolas, dantzan eta kantuan aritu ondoren mosaiko erraldoi bat osatu genuen Hurran DBH eta Batxilergoko ikasle eta irakasleak. Arratsaldez ere festak segida izan zuen HH eta LHn.



Mosaikoaren lekoan ondorengoa irakur ztekeen: **GU EUS** . Lelo honek garbi utzi nahi zuen **GU**: ikasle, irakasle, ikastolako guraso eta langileak **EUS**kararen partaide aktibo izan nahi dugula, abenduaren 3an eta etorkizunean ere bai!

Kutsu gozoarekin

Argitxoren omenezko txokolate-janak, hau da, guraso talde batek planifikatu eta aurrera eramandako ekimen bikiak arrakasta handia izan zuen lehengo ostiralean. Aurreneko aldia izan denez halako ekintza burutzen zela, hobetzeko tarterik izango dugula argi dago. Emaitzak, ordea, aho-zapore gozoarekin utzi gaitu denok (eta ez bakarrik txokolatearengatik).

Haur minbiziaren ikerketaren alde

Eitb Maratoiaren baitan bultzaturiko hainbat ekintzarekin bat egin dugu aste honetan. Alde batetik, alderdi ludikoa jorratuz Iloizen **"Lau Teilatu"** kanta bertsionatu genuen Zurriolako ikasleok Euskararen egunean Manteon eta gaur Soroako irakasle eta langile ez irakasleak aritu dira kantuan. Horretaz gain, atzo DBH2ko ikasleek minbizia izan duten ikaskideen **bizipenak partekatu** zituzten Nagore Garcia de Andoin haur onkologo eta ikastolako ama eta ikasle ohiaren eskutik. Saioa etb-ek zabaldu zuen bere gaueko albistegietan.

Ipuin kontaketak Soroan

Gaur 5 urtekoak 2 urteko gelara joan dira bisitan, ipuin bat kontatzera, abestera eta jolastera. Hamaiketakoa ere elkarrekin egin dute eta primeran pasa dute bata bestearekin.

LH1koak Zestoan

LH1eko hiru taldeak Zestoan izan dira gaur eta, bestleak beste, Ekainberriko leizean aritu dira jolasten, kukkuxeatzen, gozatzen, behatzen, esperimentatzen, hau da, azken batean, ikasten!

DBHkoak gaur egun-pasan

DBH etapako ikasleria osoak ikastolatik kanpo eman du eguna. DBH1ekoak Kutxaespazioan, DBH2koak Azpeitiko Badiolegiko araztegian, DBH3koak Durangoko Azokan eta DBH4koak Bilbon. Gauroan, beraz, LH eta Batxilergoko ikasleak lasai ederrean aritu dira Hurran DBHko ikaskiderik gabe.

Abenduaren 19an Batzar Orokorra



Zurriola Ikastola IKEk bere Ohiko Batzar Orokorra egingo du abenduaren 19an, ostegunez, arratsaldeko 7.00etan Hurrako areto nagusian. Ikastolako bazkide guztioi dei egiten dizuegu, beraz, parte hartzera gai-zerrendan ageri diren aztergaien garrantzia kontutan hartuta.

OHARRAK / AGENDA:

- **LH2:** Untzi museora irteera. Goiz pasa. Abenduak 10.
- **LH3-4:** Igeriketa ikastaroa. Goizez. Abenduaren 16tik 19ra. Zirkularra.
- **LH5:** Amets bat (Zubieta+Akuariuma). Egun osoko irteera. Abenduak 11.
- **DBH3:** 1. Ebaluazioko buletinak ikusgai Alexian.
- **BATX1 - Ekonomiako ikasleak:** Zinetek. Abenduak 10. Orona Fundazioan.
- **Gurekin Zerbitzuetan lan egiteko:** Galdetegia.
- **Zurrimendi - Mendi taldea:** Abenduko irteera. Domina banaketa.
- **Helduen Danborrada:** Izena emateko orria.
- **Adimen Gaitasun Handiak:** Hitzaldia. Abenduak 17. 17:30etan. Hurran.
- **Tximeleta:** Gimnastika erritmikoa, akrobatikoa eta dantza. Informazioa.
- **Groseko Haurtxokoa & Gaztelekua:** Abenduko programazioa.
- **Zuberoako Ikastolak sustengatzeko kanpaina:** Informazioa.

ZURRIOLA IKASTOLA IKE
Indianoene, 1 - 20013 Donostia.
943 272 587